

BURUKETAK LANTZEN

Gaur goizean, kiosko batean, 12 kutxa jaso dituzte, eta kutxa bakoitzean, 18 aldizkari zeuden. Arratsaldean, saldu gabe zeuden, oraindik, 3 kutxa oso eta 2 aldizkari. Zenbat aldizkari saldu dituzte goizean?

Faktura bat ordaintzeko, Landerrek 50 €-ko 7 billete eta 20 €-ko 3 billete eman ditu. 2 €-ko txanpon bat eta 20 zentimoko 2 txanpon itzuli dizkiote. Zein zen fakturaren zenbatekoa?

Paulek 11 urte ditu eta haren aitak 35 gehiago. Zenbat urte izango ditu aitak Paulek orain duen adinaren halako bi duenean?

Mikelek 156 bolaluma sartu zituen 4ko poltsatan, eta, ondoren, poltsa horiek 5eko kutxatan sartu zituen. Zenbat poltsa gelditu ziren kutxatan sartu gabe? Eta zenbat bolaluma?

Paulek kirol-denda bat du. Gaur goizean, 21 €-ko 25 elastiko eskatu ditu, eta hori baino 10 txandal gutxiago. Txandalen prezioa elastikoen halako hiru da. Zenbat ordainduko du guztira?

Urtarrilean, egunero, Paulek 15 km egin zituen korrika, ostegunetan izan ezik, ikastaro batera joan beharra baitzuen. Zenbat kilometro egin zituen korrika hil horretan?